




'Biziberri Navarra Rehabilita' Sarien Aurkezpena

PRENTSA-DOSIERRA
2018/11/06

'BIZIBERRI
Navarra
Rehabilita'
sariak



'BIZIBERRI NAVARRA REHABILITA' SARIAK

Zaharberritzea aukera izan daiteke etxebizitza berria erosi beharrean. Nafarroako Gobernuko etxebizitza-politikaren ardatz nagusietako bat zaharberritzea sustatzea da, Nafarroan.

'Biziberri Navarra Rehabilita' sariak xede horrekin sortu ziren, hots, etxebizitzak berritzea bultzatzeko eta haren balioa herritarren artean sustatzeko, etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko bulegoen bidez (ORVE).

Nafarroako Gobernuko ekimena da, **Nasuvinsa-ren** eta **zaharberritzeko bulegoen** elkarlanean, eta etxebizitzak edo eraikinak berritzeko ematen diren laguntzen berri eman nahi die herritarrei, baita Nafarroan egiten ari diren zaharberritze-proiektuak ezagutarazi ere. Aurrekontu babesgarriaren %60raino irits daitezke, kasu batzuetan, diru-laguntzak.

NORK ESKATU DITZAKE LAGUNTZA PUBLIKO HORIEK?

Edozein jabek, etxebizitza-erabiltzailek edo jabe-erkidegok eskatu dezake etxebizitzaren zaharberritzea "zaharberritze babestu" izatea, baldin eta erakinaren antzinakotasuna 25 urtetik gorakoa bada. Horri esker, diru-laguntzak eta mailegu kualifikatuak eskatzeko eskubidea lortzen da, baldin eta familiako errenta haztatuaren maila ez bada OAEAP halako 3,5 baino gehiago eta obraren aurrekontua 2.000€-tik gorakoa bada. Zertarako dira laguntzak? Bizitegi-erabilerako etxebizitza edo eraikinak konpontzeko, hobetzeko edo araudira egokitzeko obretarako.

Halaber, elementu komunetan lanak (fatxadak, estalkiak, irisgarritasuna, ingurutzaila termikoak) egiten ari diren jabe-erkidegok ere aholkularitza eta diru-laguntzak eskatu ditzakete.

ERRAZA DA ZAHARBERRITZEA TRAMITATZEA ORVE BULEGOEN BIDEZ

Etxebizitza edo eraikin bat zaharberritzen hasteko prozedura erraza da, nahikoa baita Nafarroa osoko edozein zaharberritze-bulegotara edo Nasuvinsa-ko eskualde-bulegoren batera joatea. Izan ere, haietan lan egiten duten arkitektoek, goi-mailakoek zein teknikoek, lagundu, aholkatu eta tramitatu egingo dizkiete zaharberritze-espeditenteak herritarrei, doan. 9 ORVE bulego daude, Nafarroa osoan barna.

ZAHARBERRITZEAK SARIA DU

'Biziberri Navarra Rehabilita' sariak Nafarroan azken urtean egindako zaharberritze-proiektu osatuenak aitortzen dituzte.

Zazpi lan aukeratu dira. Etxebizitza edo eraikina zaharberritu aurreko egoera zein ondokoa erakusten dituzte, baita berritzeak hiri-inguruneari, jabeari edo erabiltzaileari zer ekarri dion ere. Ondoko arrazoi hauek direla-eta nabarmengarrienak diren zaharberritze babestuak aitortzea du helburu sariak: eraikuntzari eusten laguntzeagatik, exekuzioaren kalitatea, ingurumenarekin arkitektura arduratsu eta konprometitu ezartzea, zeuden eraikuntzak errespetatzea (berrinterpretatu direlako eta egungo beharretara egokitu direlako).

Hona finalistak: **"Iruñeko Lezkairu"** (Lezkairuko Zalduko 11 eraikinen jabe-erkidegoa); **"Iruñeko Carmen"** (Iruñeko Alde Zaharreko Carmen kaleko 12. zenbakiko jabe-erkidegoa); **"Monteagudo"** (María Planillo Cardenal jabea); **"Gares"** (Juan Ayerra Larráyoze eta Ana Lucía Manero Ustárroz jabea); **"Muskitz"** (Imozko Udala); **"Garde"** (Beatriz Anaut Fuertes jabea); eta **"Tafalla"** (Virginia Mujica Tapiz titularra).

Sariak **azaroaren 22an**, emango dira, ostegunarekin, 19:00etan, Civicanen, eta orduantxe ezagutuko da irabazlea.

KOMUNIKAZIO-KANPAINA


"Berpiztu zure lehen etxebizitzarekin izan zenueneko ilusioa" kanpainaren barruko ekimena da, Nafarroako Gobernuak sustatutakoa, ekintza hau osatze aldera. Helburua da etxebizitza edo eraikin bat zaharberritzeko ematen den laguntza tekniko eta ekonomikoa hedatzea herritarren artean.

Mezua ahalik eta eraginkorra izan dadin, iragarkiak jarriko dira prentsan eta irratian, eta bideo bat zabalduko da sare sozialetan. Bihar bertan hasiko da kanpaina, eta bi aste iraupena izango du.





7 proiektu finalista



ETXEBIZITZA SOZIALETARAKO ERAIKINAK MODU INTEGRALEAN ZAHARBERRITZEKO PROZESUA, LEZKAIRUKO ZALDUAN

SUSTATZAILEA:

Lezkairuko Zalduko Jabeen Erkidegoa –
11 Eraikin
Lezkairuko Zaldua kalea: 1A, 1B, 1C, 1D,
1E, 1F eta 1G

Teillaiturri kalea: 12, 14, 16 eta 18

AURREPROIEKTUAREN EGILEA:

Jaime Huarte Huici

1
FINALISTA

JATORRIZKO EGOERA



OBRA-BUKAERA



PROIEKTUA

• AURREPROIEKTUAN AURREIKUSITAKO ESKUA-HARTZEA

**Eraikinaren ingurutzailerikoa
hobetzea.**

Fatxada nagusia: Fatxada aireztatua
zeramika-panelekin.

Barruko patioen fatxadak: SATE

Estalkia: Estalkia berritzea. Estali
alderantzikatua. Isolamendua
handitzea.

Igogailuak jartzea.

• PROZESUAREN GAURKO EGOERA LANAK BUKATUTA 4 ERAIKINETAN LANEAN ERAIKIN 1EAN PROIEKTUAK AURKEZTUTA ETA BAIMENAK TRAMITATZEN 4 ERAIKINETAN 2 ERAIKIN AURKEZTU ZAIN

Erabat aldatuko du esku-hartzeak
zonako hiri-irudia, antzinako eraikinen
egokitzapenak Lezkairuko auzo berrikoak
duten hiri-kalitate bera lortuta: hiri-irudia,
baldintza estetikoak.

Eraikinen baldintza funtzionalen
eguneratzea begi-bistakoa da, garai
horietan erakin sozialek zituzten gabezia
nagusiak (eraginkortasun energetikoa,
irigarritasuna) arinduta.

Interesgarria izan da, positiboki baloratzeko
modukoa, auzotarren erkidego desberdinen
artean hartu direla erabakiak, modu
bateratuan, guztion interesa eraikin
bakoitzarenaren gainean jarrita.

Esku-hartzea ORVE bulegoak babestu
duenez hasiera-hasieratik, hots,
Nafarroako Gobernuak zein Iruñeko Udalak
finantzazio-bideak ahalbidetu dituztenez,
administrazioen eta auzotarren arteko
lankidetzaren ereduak jo daiteke.

ERAIKINA MODU INTEGRALEAN ZAHARBERRITZEA, IRUÑEKO ALDE ZAHARREAN

SUSTATZAILEA:

Carmen kaleko 12 zenbakiko eraikinaren jabeen erkidegoa

ERAIKINAREN EGUNGO ERABILERA:

7 etxebizitza eta lokal bat behean

ANTZINAKOTASUNA:

1800

2

FINALISTA

JATORRIZKO EGOERA



OBRA-BUKAERA



PROIEKTUA

- Sute handia gertatu zen 4. solairuan, eta etxebizitza guztiak hustu eta itxi behar izan ziren horren ondorioz. Lanek eraikinaren funtzionalitatea eta egitura berreskuratzea ekarri dute.
- Azpimarratzekoa da jabeek egoeraren aurrean (ezin zen erabili ia-ia kolapsatu egin zelako) positiboki erreakzionatzeko erakutsitako gaitasuna.
- Eraikinaren inguratzaile termikoa egungo araudien betekizunetara egokitzea ere barne hartu zuen esku-hartzeak.
- Igogailua jartzea lortu zen; horretarako, espazio komunak (igogailua eta eskailera-kaxa) 10. zenbakiko eraikinarekin mankomunatu behar izan ziren. Igogailu-kaxak eta eskailerek 10. zenbakiaren komunikazio bertikaleko zuloa okupatzen dute, eta hasieran 12. zenbakiaren eskailera-kaxak okupatzen zuten eremua eraikinaren etxebizitzaren azalera txertatu da.
- Ukitutako bi erkidegoek interes, konpromiso handia erakutsi zuten zaharberritze-lanarekiko, baita eraikinetako espazio komunak modu arrazoizko eta logikoan mankomunatzeko akordioak iristeko gaitasuna ere.
- Beste egoera batzuetan kontrajarriak izan ohi diren balioak batu ditu esku-hartzeak, bi helburu hauen arteko apustua eginda: ondarea zaintzea eta eraikinaren prestazioen eguneratze tekniko eta funtzionala lortzea.
- Zaharberritze-lanak Iruñeko Udalaren laguntza-ildoari heldu zion.
- Labur esanda, zaharberritzearen ia balio guztiak erakusten ditu esku-hartzeak.

ERAIKINA ARGAZKIGINTZAKO TAILER-ESTUDIORAKO EGOKITU ETA APARTAMENTUA (ALOKATZEKO) SORTZEA, MONTEAGUDON

SUSTATZAILEA:
María Planillo Cardenal
**ERAIKINAREN EGUNGO
ERABILERA:**
Ez da inor bizi
ANTZINAKOTASUNA:
1960

3
FINALISTA

JATORRIZKO EGOERA



OBRA-BUKAERA



PROIEKTUA

Etxe merke deiturikoetako bat zaharberritu da modu integralean, eta hauek sortu: argazkigintzako tailer-estudio profesional bat jabearentzat eta apartamentu txiki bat alokatzeko.

Emakume gazte batek tailer-estudio profesionala herrian eratzea erabaki zuen bikotekidearekin batera; horretarako, egoera txarreko eraikin zahar bat erosi zuen. Bigarren seme-alabaren jaiotzaren aldi berean nahastu zen abenturan, eta zera pentsatu zuen ekonomikoki lagungarria izan litekeelakoan: apartamentu txiki bat sortu eta norbaiti alokatzea prezio baxuan.



FAMILIA BAKARREKO ETXEBIZITZA BATEN ZAHARBERRITZEA, GARESEN

SUSTATZAILEA:

Juan Ayerra Larrayoz
Ana Lucia Manero Ustarroz

ERAIKINAREN EGUNGO ERABILERA:

Etxebizitza

ANTZINAKOTASUNA:

1960

4

FINALISTA

JATORRIZKO EGOERA



PROIEKTUA

Zergatik erosi ote genuen etxe hau?

Ni, Juan, Gareskoa naiz, eta jabe ohiak gure aitona lehengusu-lehengusinak zirelako ezagutzen nuen etxea. Noiz edo noiz joaten nintzen haurra nintzela.

Urteak igaro... Iruñean lan egiten genuen, ezkontuta geunden eta ume baten esperoan, eta Garesera bizitzera joatea erabaki genuen. Bion familiengandik hurbilago egongo ginatke (seme-alabak izanda lagungarria delako), eta lantokietatik hurbil samar.

Pisu zoragarri batera joan ginen, baina ez zegoen ongi kokatuta. Ilogailurik ez, herritik urrun, zerbitzurik gabe.... amaitu gabeko urbanizazio batean. Egunerokoa, nahiko zaila, gutxienez bi auto izan ezean. Deserosoa zen haur-aulkiekin ibiltzeko, erosketak egiteko eta abar.

Etxe bila hasi ginean, baina herrigunean: iragarkiak, partikularrak, agentziak...

Hura ikusi, baina ez erostea erabaki genuen, zaharra zelako eta obra handia eskatzen zuelako. Baztertu egin genuen, beraz, baina nola edo hala beti itzultzen zen gure buruetara, eta aukera gogokoena bilakatu zen.

Orduantxe agertu zen José Joaquín Garralda arkitektoa. Bere ikuspuntutik, etxeak zituen benetako aukerak antzematen lagundu zigun, bere ideiak eta gureak uztartuta. Obra handi-

handi baten aurrean geundekeela jakinda, agentziarekin eta jabeekin negoziatzen hasi ginen, eta akordio batera iritsi ginen. Hurrengo urratsa: bankuak, notarioak, ORVE bulegoa, ebazpenen zain, hamaika paper... Milaka gauza egin eta ordaintzeko, eta adreilu bakar bat ere jarri gabe.

Obra-lizentzia eman zigutenean, gremioekin kontaktatzen hasi ginen (igeltseroa, iturginak, zurginak, elektrikaria...). Igeltseroa zen lehena, baina ezin zuen orduan gure etxea hasi beste obra batzuk bukatu behar zituelako lehen. Egiteko handirik zegoenez, arkitektoari deitu, etxera joateko esan eta guk zer egin genezakeen galdetu genion. Bai arkitektoak, bai igeltseroak argi ikusi zuten nondik has gitezkeen... lanari ekin genion, beraz. Mugituak, egonezinak, langileak gara gu berez, eta, haurdunaldiak ematen duen energiaren baliatuta eta begi-aurrean genuen hondamendi hori ez ikusteko genuen tema lagun, kaskoak eta segurtasun-botak erosi, eta lanean hasi ginen, haiek nola egin behar genuen azaldu eta erreminta batzuk utzi ondoren. Lanak tarte bat uzten zigunean, obrara joaten ginen.

Esperientzia nahiko ona izan zen, eta, bidenabar esanda, estresa kentzen zigun batzuetan. Hormak bota, adreiluak puskatu, mailua, pikotxa eta pala eskura.... Dena prestatuta utzi genuen egiten hasi zirenerako.

OBRA-BUKAERA



MUSKIZKO ITXASORENA BASERRIAREN ZAHARBERRITZEA, IMOZKO UDALAK SUSTATUTA: 3 ETXEBIZITZA ALOKAIRU SOZIALERAKO ETA LOKAL PUBLIKOAK

SUSTATZAILEA:

Imozko Udala

HELBIDEA:

San Martin kalea, 18 Itxasorena
edo Itxasonea baserria

ANTZINAKOTASUNA EDO ERAIKUNTZA-MOTA:

+100 urte. Baseri tradizionala:
behea + 2 + sabaia

5

FINALISTA

JATORRIZKO EGOERA



OBRA-BUKAERA



PROIEKTUA

Sustapen publikoa, Muskizko Kontzejuaren eta Imozko Udalaren arteko aurretiko akordioaren emaitza.

3 etxebizitza sortzea alokairu sozialerako prezio murriztuan, ibarreko pertsonentzat.

Erabilera publikoko lokalak sortzea: artisautailerrak, erakusketak, jarduera kultural, ludiko eta aisialdikoak...


Esku-hartzeak jatorrizko eraikuntza eta ingurunea errespetatu zituen, eta hobekuntza hauek ekarri: isolamendu termikoa, eraginkortasun energetikoa eta irisgarritasuna.

Kanpoko eremua berrurbanizatu zen. Plaza publiko bat sortu zen.

Administrazioak burutu zituen lan gehienak, eskualdeko langabetuen eskutik; udalak kontratatu zituen.

Esku-hartzearen hedapena. Liburu hau argitaratu zen: "Rehabilitación de edificio público para vivienda social", Imozko Udalak sustatuta, Itziar Matxainen argazkiekin. Aurkezpen publikoak egin ziren, eta atear ireki jendeari.

ORVE bulegoaren esku-hartzea. Bulegoak eskaini ohi dituen gain (informazioa, aholkularitza eta zaharberritze babestuarentzako laguntzen espedientea tramitatzea), Hirigintza Aholkularitza Zerbitzuak etengabe lagundu zuen bideragarritasun-azterlana idazten (aurreproiektuan, deialdian eta proiektuaren idazketarako eta lanen zuzendaritzarako lehiaketaren esleipenean), jarduketei jarraipena egiten eta berrurbanizatzerako eta haren zuzendaritzarako memoria baloratua idazten.



ETXEBIZITZA BERRI BAT EGITEA, GARDEN

SUSTATZAILEA:

Beatriz Anaut Fuertes

ERAIKINAREN EGUNGO ERABILERA:

Biltegia, eskorta

ANTZINAKOTASUNA:

1900

6
FINALISTA

JATORRIZKO EGOERA



OBRA-BUKAERA



PROIEKTUA

Ehun urtetik gorako borda bat berritu zen sustatzailearen ohiko etxebizitza izateko. 148ko biztanleko herri batean dago borda, Gardeko erdigunean, Nafarroako Pirinioan.

Beheko solairua eta lehen solairua zituen antzinako eraikinak, tipologia tradizionalakoak, hots, harrizko hormak eta teila-estalkia zituen. Nekazal produktuak eta abereak gordetzeko erabiltzen zen lehen, eta egun ez da ezertarako erabiltzen ari.

Sustatzailea abeltzain gaztea da, familiaren jarduerarekin jarraitzen duena. Jaio zen herrian bizitzea erabaki zuen, eta, horrela, ibarraren jarduerak jarraitzen eta biztanleria ez galtzen lagundu zuen.

Inguruko gremioek egin zituzten lanak, tokiko ekintzailera eta ibarraren garapen sozioekonomikoa sustatuta.

Esku-hartze integrala izan zen, beraz, neurri-neurriko aurrekontu batekin egina, zeinari esker sustatzaileak ametsa (estreinako etxebizitza izatea) egia bihurtu baitu, baita landa-populazioaren jasangarritasunari zein eraikitako ondare kulturalari eusten lagundu ere.

ZAHARBERRITU 2018 SARIAK - TAFALLAKO ORVE

SUSTATZAILEA:

Virginia Mujica Tapiz

ERAIKINAREN EGUNGO ERABILERA:

Erabilerarik ez (etxebizitza eta eskorta zen lehen)

ANTZINAKOTASUNA:

1800 (218 urte)

7
FINALISTA

JATORRIZKO EGOERA KANPOTIK



OBRA-BUKAERA



JATORRIZKO EGOERA BARRUTIK

PROIEKTUA



“Zaharberritu 2018” sarietara (Tafallako ORVE bulegotik) proposatzen da sarien baldintzen barruan dagoela eta hiri-zaharberritzearen helburuak bete dituela jotzen delako.

Bikote batek (alaba bat dute) sustatu zuen eskua-hartzea, alde historikoa bizitzeko eta auzo- harremanetarako ingurune egokia zelakoan.

Erakina ez zen erabiltzen ari, eta erosi egin zuten. Nahiko hondatuta zegoen, eta ingurunea nahiko degradatua zegoen, batez ere haren alde bat. Aipatu beharra dago antzeko esku-hartze bat egin zela kale bereko beste eraikin batean bi edo hiru urte lehenago eta sustatzailea ezaugarri bertsukoa zela. Hari eta aurkezten ari garenari esker, ingurunearen degradazioari buelta eman ez bazaio ere, eten bai eten da behintzat.





Nafarroako bulegoen zerrenda

NAFARROAKO BULEGOEN ZERRENDA

1 IRUÑA HIRIBURUA

Eslava kalea, 1 (Iruña)
T 948 42 09 80 eta 948 42 09 81
F 948 42 09 82
orve@pamplona.es
Jendearentzako arreta-ordutegia:
8:30-14:30

2 IRUÑERRIA

Joaquín Azcárate, 6,
beheko solairua (Burlata)
T 948 13 02 33
orve@infonegocio.com
Jendearentzako arreta-ordutegia:
9:00-14:00

3 PIRINIOAK-AGOITZ

Trinkete kalea, 13,
beheko solairua (Agoitz)
T 948 33 43 54
F 948 33 43 55
pirineo-aoiz@nasuvinsa.es
Jendearentzako arreta-ordutegia:
9:00-14:00

4 BAZTAN-BIDASOA

Merkatarien kalea, 6 (Doneztebe)
T 948 45 61 03
F 948 45 13 20
baztan-bidasoa@nasuvinsa.es
Jendearentzako arreta-ordutegia:
9:00-14:00

5 ESTELLERRIA

Anai Diego kalea, 3 (Lizarra)
T 948 55 22 50
F 948 55 21 03
orve@orvetierraestella.net
Jendearentzako arreta-ordutegia:
9:00-14:00

6 SAKANA

Gazteizbide kalea (Lakuntza)
T 948 46 48 67
F 948 46 48 53
info@sakana-mank.com
Jendearentzako arreta-ordutegia:
8:00-15:00

7 PIRINIOAK-ZANGOZA

Kale Nagusia, 8,
beheko solairua (Zangoza)
T 948 87 18 35
F 948 87 18 34
pirineo-sanguesa@nasuvinsa.es
Jendearentzako arreta-ordutegia:
9:00-14:00

8 TAFALLAKO ESKUALDEA

García Goyena, 22 (Tafalla)
T 948 75 50 34 y 948 75 51 94
F 948 70 40 80
orvetafalla@gmail.com
Jendearentzako arreta-ordutegia:
9:00-14:00

9 ERRIBERA

Capuchinos Kalea, 6, 1.
solairua (Tutera)
T 848 42 03 40
ribera.tudela@nasuvinsa.es
Jendearentzako arreta-ordutegia:
9:00-14:00

ETXEBIZITZA ZERBITZUA

Alhondegi kalea, 1, 1. solairua (Iruña)
T 848 42 75 70/848 42 76 32
vivienda@navarra.es





BIZIBERRI
NAVARRA REHABILITA